

LATINOAMERIKAREN ZAIN URRATUAK



Simon Bolívarren profezia: Inoiz ez gara zoriontsu izango, inoiz ez!

BIOGRAFIA

BERRIAK:

[Latinoamerikaren zain urratuak | Miradas | 7K - zazpika astekaria](#)

Klasiko bihurtu den “Las venas abiertas de América Latina” liburuaren itzulpena. **Saiakera eta kronikaren arteko lan hibridoa da.** Bertan, Uruguako idazleak, XVI. eta XIX. mendeen arteko inperio kolonialek eta XIX. mendetik aurrera estatu inperialistek Latinoamerikan egin dituzten baliabide naturalen etengabeko **lapurretak** erakusten ditu. Protagonistak metalak, elikagaiak eta erregaiak dira; indiarak, konkistatzaileak, esklaboak, langileak eta latifundistak; herrialdeak eta tokiak, banketxeak eta multinazionalak; banana errepublikak, iraultzak eta estatu-kolpeak... Berrogeita hamar urte igaro dira jatorrizko argitalpenetik, eta denbora horretan munduak buelta asko eman dituen arren, gaurkoa ulertzen laguntzeko liburua izaten jarraitzen du. **«Esango nuke kolonialismoaren azterketarako derrigorrezko liburua dela»**, esan du Iñaki Alegria itzultzaileak.

GARAITUEN HISTORIA

'Latinoamerikaren zain urratuak' lanak 50 urte bete ditu. Tarte horretan, hogeitaz hiru hizkuntzatara itzuli dute Eduardo Gleanoren liburua, eta ezkerren erreferente bilakatu da. Txileko, Uruguako eta Argentinako diktadorek debekatu egin zuten, eta «arriskutsu» izendatu zituzten liburua zeukatenak. Gleanok 31 urterekin bukatu zuen lan hori idazten, eta **hiru hilabete eman zituen horretan**. Gleanok berak honela definitu zuen: **ekonomia politikoko dibulgazio eskuliburu bat, maitasunezko eleberri baten edo pirata kontakizun baten estilokoa**. Liburu kutun bihurtu zen askorentzat, ez soilik kontatzen zuenarengatik, baita hori **kontatzeko moduarengatik ere**. Liburua ospetsu egiten ari zen garai hartan, estatu

kolpeak izan ziren Txilen, Uruguain eta Argentinan: oso gutxirekin bizi ginen arlo materialari dagokionez, baina **bagenuen zerbait desagertu egin zaiguna: itxaropena**». Gaiak: mendekotasuna; eskualdearen analisia, kapitalismo mundialaren harremanen barruko kasu espezifiko bat zen aldetik; eta gizarte borrokak, nagusiki antiinperialistak. Era berean, Gleanok iragan koloniala deskribatzen du,

«Hizkera hermetikoa ez da beti sakontasunaren prezio ezinbestekoa. Batzuetan, komunikatzeko gaitasun falta ezkututzen da bertute intelektualtzat jotzen den horren atzean», esan zuen Gleanok Siete años después testuan, erbestetik.

https://www.berria.eus/mundua/memoriaren-ahotsa_1302596_102.html

Gleanok bere obra ezagunena izango zena argitaratu berritan akademiak bizkarra eman zion, besteak beste, **generoen arteko mugak gainditu zituelako**, eta, beraz, ezinezkoa zelako hari etiketa bat jartzea.

bereziki kontu egiten zuena edonork ulertzeko moduan eta batere hantusterik gabe idaztea, nahiz eta haren obra ez den beti erraza digeritzen.

Jendearekin mintzatzeko asmoz idatzi nuen liburu hau. Espezialista ez den egile bat espezialista ez den entzuleriarengana zuzentzen da historia ofizialean, irabazleen historian alegia, ezkutatutako edo gezurtatutako gertakariak jendarteratzeko.

«Neoliberalismoa agertu eta gero zer gertatuko zen iragarri zuen»

Latinoamerikaren zain urratuak obraren lehen edizioa argitaratu zen ia aldi berean, **Fausto Reinaga** intelektual eta idazle indigena boliviarrak *La revolución india* (1970) eta *Tesis india* (1971) argitaratu zituen. Bi lan horiekin, idazleak Mendebaldeko pentsamendua ostikoka irauli zuen, ezkerreko zein eskuineko ikuspegi indigenistak zalantzan jarri, eta indianismoaren oinarriak finkatu. Hainbat gauza planteatu zituen, hala nola alfabetoa arma bat dela, hizkuntza pentsamendu bat dela eta gaztelania kultura bat dela;

ikuspegi indigenista bat da, non indigenak kolonialismoak esplotatutako biktima eta subjektu gisa dauden, eta ikuspegi horretan indigenek ez daukate gaitasun handirik prozesu historikoetan eragiteko.

Desadostasunak zeuden Latinoamerikako ezkerren diskurtso batzuen eta proiektu indigenen artean.

LECKO: Reinaga **indianismoaren** sortzailea da. Ezkerrez zein eskuinaz nazkatu zen, eta indigenatzat zeukan bere burua. Niretzat bai Gleano, bai Reinaga oso erreferente garrantzitsuak dira. Reinagak askoz ere ezagunagoa izan beharko luke. Nik haren iritzi bera dut: **indigenek mundua ikusteko daukaten modua ez da ez ezkerrekoa, ez eskuinekoa.**

THOMSON: Oso garai garrantzitsua izan zen, baina oraindik ez zegoen adostasunik. Gleanok Bolivia bisitatu zuen *Latinoamerikaren zain urratuak* argitaratu zen urte berean,

1971n, baina meatzaritzako proletarioekin egon zen, eta **ez zen egon ez landan, ez La Paz eskualdean, non nekazari indigenen mugimendua sortzen ari zen.**

Zertan bereizten dira indianismoa eta katarismoa edo nekazarien mugimendu sindikala?

THOMSON: XX. mendearen amaieran, bi korrante nagusi daude Bolivian: katarismoa eta indianismoa. Elkarrekin sortu ziren, baina bereiziz joan ziren. Reinaga da gazte horien prestakuntzarako intelektualik garrantzitsuenak.

Zergatik bihurtu zen horren ezagun Latinoamerikaren zain urratuak?

THOMSON: Alde batetik, oso ondo idatzita dagoelako, ulertzeko moduan, estilo grinatsu eta ez-akademikoan. Beste elementu garrantzitsu bat da **umorez idatzita dagoela, umore beltzez. Sarkasmoa** oso erakargarria da irakurlearentzat.

Hori ez da galtzen ingelesezko itzulpenean?

Zer garrantzi du gaur egun obra horrek?

THOMSON: Eskuinak ez ezik, akademikoek, ekonomialariek eta historialariek ere kritikatu dute liburua. Haien ustez, esparru analitiko gisa ez du garrantzirik mendekotasunari dagokionez. Baina, Christy Thorntonek adierazi bezala, **Galeanok oso arazo larria aipatu zuen, XX. mendearen amaieran gai nagusi bihurtu zena, hau da, Munduko Bankuak, NDFk eta halako erakundeek finantzak inposatzeko dituzten moduak.**

Hor ikusten duzu Galeanok, nolabait, indigenen mugimenduekin elkarriketa eta harreman horizontalagoa eta errespetuzkoagoa izatea lortu zuela.

Fausto Reinaga: Pensamiento y Liberación India Aymaraquechua en los Andes



El indio no es una clase social, es una raza, una Nación, una historia, una cultura. El indio es un pueblo oprimido y esclavizado. El indio no tiene que integrarse ni asimilarse a nadie. El indio tiene que *liberarse*. Y la liberación del indio será obra del mismo indio.

(**REINAGA, 2010**, p.75)

KRITIKAK: Ez dago

AZPIMARRAK:

Iban Zalduaren hitzaurrea:

Bere testuinguruan kokatzea eta ulertzea ezinbestekoa bada ere, hats luzeko lana da.

Afganistango inbasio sobietarraren gerra-krimenen kontrako nazioarteko epaimahaiaren partaide moduan egon zen (1978-1992) (El golpe de estado de Chile en 1973) Kuriosoa, ezta?

Idazle gisa, bere emaria esanguratsua suertatu da mikroipuinaren alorrean: horregatik da batez ere oroitua. Ezini dugu ahaztu badela, orobat, saiakera literario bat.

BOOM latinoamerikar literarioaren liburu esanguratsuenen artean kokatzen da, Rayuela, Cien años de soledad, Conversacion en la catedral edo la muerte de Artemio Cruz ezagunen maila bertsuari.

Bidaiari handia izan zen Galeano.

Borrokarako burututako liburu bat da. Ironiaren eta sarkasmoaren baliabide literarioen erabilerak, batere ohikoak ez zirenak mota horretako eskuliburuetan.

Hainbat diktaduren debekutik datorkio ospea,ordura arte ez baitzuen alerik saldu, familiak ere ez zuen erosten. Galeanok, berak susmaten zuen hori izan zela Kubako gorbernuak ematen zuen Casa de Las Americas saria irabazi ez izanaren arrazoa, ez zela nahiko ortodoxoa. 1970eko hamarraldian, ezkerak oraindik seriotasuna asperdurarekin identifikatzen zuen. Hamarkada horretara jo behar da atzera, non, batzuetan, iperakademizismoa hain sofistikatu eta konplexua zen, ezen jende askorentzat ulergaitzak bihurtzen baitziren aztertzen zituen arazoak.

Zain urratuak ekonomia politikoko liburu bat izaten saiatzen zen, baina nik ez nuen horretarako nahikoa prestakuntza. Eta, batez ere, estiloa egiten zitzaion arrotz, orduz geroztik bere bilakaera literarioa kontuan hartuta.

Pentsamendu neoliberaletako ekonomialari eta historialarientzat lan hau aurreritiz beteriko KATIXIMA MARXISTA hutsa da, "idioten biblia".

1492 eta 1978 bitarteko Latinoamerikako historia ekonomiko eta sozial bat da. Euskal Herriaren oraingo egoera ekonomikoaren oinarrian dagoena...Elkanoren balentria globalizatzaile eta inperialistaren bostgarren mendeurrena ospatzen ari garelarik. (Bergarako zalduntxoak, eta [Euskal Herriko Adiskideen Elkarte](#), [Karakas-ko Gipuzkoar Konpainia](#) eta [Masoneria | egoneanegon](#) .

GALDERAK IDAZLEARI

AURKEZPENA, ONGI ETORRIA

1. Zer dela eta erabaki zenuen liburu hau itzultzea? Zer garrantzi izan zuen, bere garaian, zuretzat? Ez al du gaurkotasunik galdu?
2. Zer arazo eman dizkizu itzulpenak? Ados al zaude tonu umoretsuan idatzita dagoela, umore beltzez?
3. Iban Zalduaren hitzaurreak, zer ekarpen egiten dio liburuari?: ez al du planteatu liburuan bertan dagoena are modu trinkoagoan, zurrunez, ez al da hori bera Galeanok kritikatzeko zuena, ezkerren diskurtso intelektualegia, elite batek bakarrik digeritu ahal duena?
4. Galeanok 31 urterekin bukatu zuen lan hori idazten, eta **hiru hilabete eman zituen** horretan. Ez al da denbora gutxi horrelako proiektu sendo batek eskatzen duen informazioa bildu eta sortzeko?
5. «arriskutsu» izendatu zituzten liburua zeukatenak. Latinoamerikako mugimendu iraultzaileak ia desagertu dira, kapitalaren eraginez eta faxismoa berrindartzen ari da, horra hor Milei eta beste batzuk. Jadanik frogatuta utzi dugu ez gara arriskutsuak?
6. Liburuak gaurkotasunik ez duela galdu diote askok, baina aurrera goaz ala atzera goaz? Bere garaian esperantza bazegoela zioen Galeanok, gaur egun denboraren perspektibarekin errealitateak itxaropenerako aukerarik uzten al digu?
7. **“Jendearekin mintzatzeko asmoz idatzi nuen liburu hau”**, zioen Galeanok. Zer adierazi nahi digu horrekin?

8. *Latinoamerikaren zain urratuak* obraren lehen edizioa argitaratu zen ia aldi berean, **Fausto Reinaga** intelektual eta idazle indigena boliviarrak *La revolución india* (1970) eta *Tesis india* (1971) argitaratu zituen. Galeanok ospea lortu du Reinagak, berarekin alderatuta ez. Indigenismoaz hitz egitea indigena ez den batek ala ere ez al da egin distantziatik? Gizarte txuriak berdin baloratzen al ditu biak? **indigenek mundua ikusteko daukaten modua ez da ez ezkerrekoa, ez eskuinekoa dio Reinagak. Horrek distantzia eta mesfidantza bat markatzen du ezkerreko diskurtso ofizialekiko, ezta? 1971an Galeano Bolivian egon zenean ez zen elkartu sortzen ari zen mugimendu indigenarekin.**
9. Nola dago indianismoa, indigenismoa? maputxe herria, adibidez, zapalduta jarraitzen du oraindik ere eta evangelistek lortu dute haien komunitatearen erdia bereganatzea, maputxe katolikoekin muturka jarritz, gainera, eukaliptoaren bidez bere natur baliabideak eta beraiei bizitzeko baldintzak zapuzten dituzte etengabe. Ba al du etorkizunik indigenismoak?
10. **Badakit sakrilegiotzat har daitekeela dibulgazio-eskuliburu honetan ekonomia politikoaz aritzea amodiozko edo piraten nobeletan bezala. Baina aldapa gora egiten zait, aitortu egin behar dut, kodean idazten duten soziologo, politikologo, ... batzuen lan baliotsu batzuk irakurtzea. *Hizkera hermetikoa ez da beti sakontasunaren prezio ezinbestekoa. Batzuetan, komunikatzeko gaitasun falta ezkututzen da bertute intelektualtzat jotzen den horren atzean***
11. **IBAN Zaldua**
12. ““Euskal Herriaren oraingo egoera ekonomikoaren oinarrian dago” hor agertzen den **esplotazioa**. Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia, Caracasko Gipuzkoar Konpainia edo Gipuzkoar Konpainia ([gaztelaniaz](#) sortua, *Real Compañía Guipuzcoana de Caracas* edo *Compañía Guipuzcoana* izenez) [gipuzkoar](#) merkataritza-konpainia bat izan zen [1728tik 1785era](#), eta [monopolioa](#) izan zuen [Venezuelarekiko](#) merkataritzan. [Tabakoa](#), [kakaoa](#) eta kolonietako beste hainbat gai ekarri zituen [Venezuelatik](#), eta hara hainbat produktu eta tresna esportatu. Konpainiak [esklabuen trafikoan](#) jardun zuen ere, [Hugh Thomasen](#) arabera, 1754 eta 1765 urte artean [Caracaseko](#) portuan **12.000 esklabu** egindako pertsona sartu zituen.^[1]
13. Zer leku dauka literaturak liburu honetan, zer ezaugarri literario nabarmenduko zenituzke?